



## Eskolara buelta ikuspegi pedagogikotik

2020ko ekainaren 30ean



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)

## Aurkibidea

Sarrera .....	03
HEZKUNTZA LANGILEAK BALOREAN JARRI ETA ZAINDU .....	04
EBALUAZIO HEZITZAILEA .....	04
METODOLOGIA ERALDATZEKO URRATSAK .....	06
INKLUSIORANTZ URRATSAK .....	07
ANIZTASUNA ABERASTASUN GISA .....	08
HIZKUNTZA ETA KULTURA .....	09
HEZKIDETZA .....	09
KALITATEZKO ZAINZA HAUR HEZKUNTZATIK HASITA .....	10
JANTOKITIK JANGELARA .....	11
BERDEAN HEZI .....	11
HIGIENEA .....	12

2



## Sarrera

*“Eskola enpresa batean bilakatu nahi dute, helburu gisa errendimendua duena.  
Hau lurreko desjabetuentzat tranpa mortal batean bilakatuko da.”*

*Paulo Freire*

Lehenik eta behin gure aitortza etxetik lanean egon zareten eta zaudeten hezkuntzako langile guztioi. Egun edo aste gutxitan, eskolak emateko modua eraldatu eta inplikazio handiarekin oraindik ere gehiago duindu duzue gizarte guztiaren aurrean hezkuntzako langileon lana. Baliabide gutxirekin, ardurak handiarekin eta maiz egin beharko genukeen lana baino askoz gehiago eginez, erakutsi duzue zein funtsezkoa den hezkuntza eta langileon inplikazioa. Zorionak eta eskerrik asko.

Egun hauetan, poliki-poliki eskolara bueltatzen ari gara. Gure buruari egiten diogun lehen galdera da, zein eskolara bueltatu nahi dugu? Lehengo eskolara? Lehengo hezkuntza sistemara? Guk ez dugu atzera egin nahi, ez dugu zaharkituta, agortuta dagoen hezkuntza sistemara itzuli nahi, LABek aurrera egin nahi du. Aste hauetako parentesiaren ondoren, berriz berdinerara bueltatzea akats larria litzateke. Aurrera egin behar dugu, bakoitza dagoen tokitik abiatuta, ortzimuga berri baterantz, Euskal Eskola Publiko Komunitariorantz.

Ez gara hausnarketa sakonetan sartuko, proposamen zehatzak eta egingarriak planteatuko ditugu, zenbait eskolatan dagoeneko egiten ari direnak, beraz posibleak eta beharrezkoak dira ondoko neurriak: inklusiorantz, euskalduntzerantz, kultur transmisiorantz, hezkidetzarantz, ebaluazio hezitzailearantz, haur eta nerabeen ongizaterantz, etab.

Administrazioei ardurak hartzeko eskatzen diegu, hezkuntza herri honen etorkizunerako gako nagusia delako, etorkizun beltz honi aurre egin nahi badiogu hezkuntzan sinetsi eta inbertitzen has daitezela, hezkuntzan beharrezkoak diren inbertsio ekonomiko, pertsonal eta baliabide mailakoak egin ditzatela, eskolara buelta hezkuntza komunitatearekin adostu dezatela. Bestalde hezkuntza langileak hezkuntza eraldatzen jarraitzera animatu nahi ditugu, jakinekoa delako administrazioetatik ezin dela ezer espero. Are eta gehiago, egun gutxitan erakutsi dugu hezkuntza goitik behera eraldatzeko gai garela. Izugarrizko gaitasuna dugula erakusten ari gara. Gaitasun hau guztia, kurtsio berria, benetan berria izan dadin erabiliko bagenu? Ikasturte berria prestatzeko momentua da, ilusioz etorkizun berri eta hobea eraikitzeko, poliki-poliki eskolara bueltatu eta errealitate berri bat eraikitzeko. Ondoko lerroetan, azken asteotan metatuko esperientziak bildu ditugu, epe motzean egin daitekeena ekarri dugu gogora, baina, bereziki, prestatu gaitezen ikasturte berrian hezkuntza eraldatzeko.

3

## HEZKUNTZA LANGILEAK BALOREAN JARRI ETA ZAINDU

*"Zaintza ere hezitzailea da. Eskolara bueltatzen garenean zauri asko izango ditugu sendatu eta zaindu beharrekoak."*

Nora Salbotx

- **Gure burua zaindu.** Gure lana ezinbestekoa delako, gure burua zaintzetik hasi behar dugu, osasunari dagokionean, emozioei dagokionez. Gure hezitzaile lana ongi burutzeko ondo egon behar garelako. Eskolara bueltan hezkuntzako langileok elkar zaindu.
- **Hezkuntza balorean jarri.** Estamentu guztiei, administrazioei lehenik eta behin, eskatzen diegu hezkuntzako langileak zaintzeko, baloratzeko eta behar dituzten baliabideak eskura jartzeko: osasun baliabideak, pedagogikoak, formakuntzakoak.
- **Lan baldintzak hobetu.** Zentzu honetan ezinbestekoak dira ondoko neurriak berehala hartzea: ratioak jaistea, plantillak handitzea, egonkortasuna bermatzea, ordezkapenak betetzea, etorkizun laborala argitzea, azpikontratazioekin amaitzea.
- **Kontziliazioa bermatu.** Hezkuntzako langile askorentzat, on-line hezkuntza oso gogorra bilakatu da, zaintza lanak eta lan profesionala uztartzeak izugarritzko lan karga eragin duelarik. Horregatik, administrazioek, patronalek eta langileok kontziliazioa bermatzeko lan kargak arindu eta baimen ordainduak bermatu behar dituzte.

4

## EBALUAZIO HEZITZAILEA

*"Osasuna edota alderdi emozional eta afektiboaren garapen egokia. Konfiantzak, gardentasunak, norabide askotariko autoebaluazioak-koebaluazioak-heteroebaluazioak, autokritikak eta hausnarketak, profesionalen prestakuntzak eta lan-baldintza egokiek zoru egokia jar dezakete hezkuntza-sistema hobetzeko."*

Joxe Mari Auzmendi

Joan berri zaigun Joxe Mari Auzmendiren hitzek gaurkotasun berezia hartzen dute egoera honetan. Ebaluazioa da kurtso amaiera honetan askorentzat buruhauste nagusietakoa. Baina zer da ebaluazioa? Zertarako ebaluatu? Zer ebaluatu.

Ebaluazio hezitzaileantz urrats zehatzak egitea proposatzen dugu:

- **Ebaluazio jarraia.** Ikasturtean zehar egindako lana, izandako jarrera, lortutako aurrerapenak baloratu, kontestu oso zailean egin dela kontuan hartuz.

Ikasleen egoera emozionala landu eta ebaluatu. Inportantea langileok eta ikasleak ongi egotea da, eta gehiago egoera honetan. Ikasleak ez badaude ondo, ez dute ikasiko. Ikasleen familiarekin harremanak estutu behar dira, etxean bizi izan dutena ezagutzea ezinbestekoa delako emozioetan hezteko.

- **Ikasleen harrera eta jarraipena tutorizatu.** Ikasle bakoitzak 6 hilabete hauek modu oso ezberdinean bizi izan ditu, guztiek beharko dute laguntza eta batzuk laguntza are sakonagoa. Horregatik, irakasle eta langile taldeak ikasleen harrera prestatu eta ikasle bakoitzaren jarraipena tutorizatu beharko luke ikasturte osoan zehar, ikasle bakoitzaren jarraipen zehatzagoa eginez, eskolak ikaslearen beharretara moldatuz eta arlo guztietan lagunduz bereziki arlo sozio-emozionalean.

- **Entzun.** Konfinamenduan ikasitakoaren eta bizitzakoaren inguruan gelan hitz egin, haur eta nerabeei entzun, hitz egiteko eta hausnartzeko espazio seguruak eskaini.

- **Curriculumak moldatu.** Oinarrizko curriculumak garatzea izan beharko litzateke puntu komuna. Horretaz gain, curriculumak ikasle bakoitzera eta kontestu berezira egokitu behar da, curriculumak ez da helburua tresna da eta ez gara gu edo ikasleak curriculumak moldatu behar, alderantziz baizik. Administrazioek eskain diezaietela baliabideak langileei, utz diezaiela eskolei autonomia, baita pedagogia mailan ere.

- **Azterketak ezabatu edo pisua kendu.** Azterketa memoristikoak iragana dira, egun eskola eta unibertsitate askotan ez dira ia egiten, frogatua dagoelako ez dutela kasu gehienetan ikasteko balio: sufrimendurako, lehiarako, etiketak jartzeko balio dute, hori ez da hezkuntza. Telelanaren ondoren azterketak egiteak oraindik ere zentzu gutxiago dauka.

- **Kalifikatzea ez da ebaluatzea.** Ebaluatu, ez kalifikatu. Nota bat jartzera behartuak bagaude, gutxienez notari garrantzia kendu, ikasleak ebaluazio prozesuan inplikatu, subjektu egin. Noten ordez informak idatzi edo gutxienez notekin batera informak osatu. Administrazioak utz diezaiola hezkuntza komunitateari aurrera egiten, horrenbeste burokrasia eta kontrol soberan dago.

- **Autoebaluazioa.** Ebaluazio oso garrantzitsua da ikasteko eta pertsona gisa garatzeko. Horregatik, ikasleek beraien burua ebaluatu behar dute, etengabe, ikasketa prozesuaren jabe egin daitezten. Kurtso amaiera berezi honetan, ikasleek beraien buruari buruz, bizipenei buruz hausnartzea garrantzitsua da.

Gogoan izan Maria Montessori-ren hitzak: "Hezkuntzarekin asmatzen ari garen froga nagusietakoa, haurraren poztasuna da."

## METODOLOGIA ERALDATZEKO URRATSAK

*"La escuela debe ser un lugar bello, donde se pueda respirar cultura, haya música, arte, sea agradable y cómoda. Debe preocuparse por ofrecer a todo el mundo aquellas bases, aquellas motivaciones, aquellos modelos culturales imprescindibles para construirse en patrimonio de conocimiento, habilidades y competencias."*

Francesco Tonucci

6

- **Konpetentzietan hezi, metodologia hezitzaileak indartu.** Eskola errealitatearekin lotu; arazo egoera errealak konpontzera bideratu; haurrak, nerabeak, ikasleak subjektu aktibo bilakatu, beraien interesetatik abiatu eta motibatu. Ez dadila gai bakar bilakatu, baina, COVID19az eta bere ondoriez, errealitateaz, bizi garen jendarteaz jabetzeko balio dezake: berdin hizkuntzetan, historian, filosofian, matematikan, fisikan, geografian edo kimikan.

- **Ratioak jaisteko aprobetxatu, ikuspegi sanitariotik eta pedagogikotik.** Administrazioak mugitu beharra dauka, egoera aprobetxatu, hezkuntza kalitatean salto bat emateko, bitartean hezkuntzako langileok egin beharko dugu. Talde txikian askoz gehiago ikasten da. Are eta gehiago, irten ikasgelatik erabili eskolako espazio guztiak. Eta bereziki kanpoko espazioak, eskolakoak, kalekoak eta inguruneak, errealitatetik atera nahi ditu sistemak eskolak, lotu ditzagun herria eta eskola, jarri ditzagun hezkuntzaren zerbitzura eraikin eta kaleak. Birusek aire librean indarra galtzen dute.

- **Hezkuntza kooperatiboa.** Gizakiok elkarrekin lan eginez ikasten dugu, are eta gehiago gizakiak pertsona sozialak gara, sozializazioa behar dugu. Pandemiak eta beronen kudeaketak, konfinatzera, elkarrengandik urruntzera eraman gaitu, zauri emozionalak sortuz. Eskolara bueltan elkarrekin egon, hitz egin, esperientziak zein irakaspenak konpartitu eta elkarrekin lan eginez ikasteko aprobetxatu.

- **Ekintzaile eta sortzaile.** Aste hauetan denok sortzaileagoak bihurtu gara, postreak egin, idatzi, antzeztu edo marraztu dugu, eginez ikasi dugu asko konfinamenduan. Jarrai dezagun sortuz, ekinez eta ikasiz eskolan. Ez ditzagun liburuak biblia bilakatu. Ahal baduzue baztertu guztiz, gehienak kapitala, eliza edo estatuen zerbitzura eginak daude, gutxienez apalean utzi gehiagotan. Hitz egin, eztabaidatu, pentsatu, sortu, eraiki. Administrazioek ez ditzatela beraien curriculumak, mundu ikuskerak eta ideologiak inposatu. Bizitza ez da testuliburu bat.

- **Erritmoa lasaitu.** Kapitalismoak eredu erabat produktibista sartu digu buruan eta eskolan, baita telelanean egon garenean ere. Kalitatean dago gakoa, ez kantitatean. Ikasketa prozesuak bizi egin behar dira, eman denbora egiteko bakoitzari, aberastu heziketa, atsedenaldi gehiago egin.



- **Ikasketa integrala.** Proiektuan lan egin, irakasgai, konpetentzia anitzak uztartu. Errealitatea ez da gaika banatzen, eskola ere ezin da gai zurrunetan banatu. Gutxienez tarteka, irakasgai ezberdinetako irakasleak elkartu, elkarrekin ikasi eta egin proiektu komunak: fisikako lan bat idatziz eta ahoz teknologia berriekin aurkezten dugunean zenbat ikasgai lantzen ari gara aldi berean? Fisika, plastika, teknologia, informatika, hizkuntzak,...Zenbat konpetentzia lantzen ditugu aldi berean? Arlo guztietan eta adin guztietan da posible. Administrazioa aldaketa honen laguntzaile izan dadila, ez oztopatzaille.

## INKLUSIORANTZ URRATSAK

*“Hezkuntzak ez du mundua aldatzen,  
mundua aldatuko duten pertsonak aldatzen ditu”*

*Paulo Freire*

- **Arrakalak gainditu.** Konfinamenduak, telelanak aniztasunaren eta inklusioare- n trataeran oraindik ere arrakala sakonagoa utzi du: elikadura, internet, aniztasun funtzionala, erritmo aniztasuna, emozioak...Hartu behar beste denbora ikasleekin egoteko, guztiak eta bereziki egoera zaurgarrian daudenak zaintzeko, hitz egiteko, emozioak adierazteko,...Ongi zaindu ea ikasleek elikadura ona izan duten, (egoera sozioekonomiko honetan, ez da ziurra ume asko eta askok etxean egunean gutxienez hiru otordu bermatuak dituztenik, hezkuntza sistemak, ume hauen bizitza, osasuna eta ongizatea bermatu behar ditu beraien kalitatezko elikadura osasuntsua bermatuz), emozio mailan nola dauden, baliabide pedagogiko aski izan dituzten etxean,...Horrela ez bada saiatu laguntzen eta administrazioa interpelatu neurriak hartu ditzan. Besteak beste, jangelak segurtasunez irekitzea.

- **Ikaslea, subjektu.** Ikaslea jarri behar da erdigunean, metodologia, erritmoa, curriculuma ikasle bakoitzaren beharretara moldatzea komeni da eta ez alderantziz. Gobernuetara dagokie baldintza egokietan hezteko tresnak eta formakuntza eskaintzea, baina ez dute egingo. Saiatu eta ziur aurrera pausu bat gehiago emango dugula.

- **Familiak inplikatu.** Familia guztiekin harreman sendoak eraikitzen saiatu behar gara. Ikasleek etxean dituzten aukerak eta oztupoak, motxilan zer dakarten jakin behar dugu eta familia, gurasoa(k) edo tutore legala ikasketa prozesuan ahal duen neurrian inplikatu.

- **Inklusio prozesu moduan.** Garrantzi handiko hiru esparru daude: antolaketa, curriculuma eta zerbitzuak (lagun-tzak). Antolaketan, erabil-tzen diren metodologiak, espazio, ordutegi, baliabide eta ekintzak hausnartu eta berraztertu beharko dira eskolara bueltatzean. Ikastetxearen proiektuan, hausnarketa egin behar da: ea lehentasuna duen aniztasunak ala ez, eta nola planteatzen den; nolako ikasleak ditugun eskolan ikusi behar da, non dagoen ikastetxea, zer-nolako familiak etortzen diren...

- **Curriculuma birpentsatu.** Curriculumak irekia eta malgua izan behar du, dibertsifikatua, multikulturala, diziplinartekoa, esanguratsua eta funtzionala. Ez da -aniztasuna 'integratu' behar, baizik eta eskola-errealitatearen barnean txertatu behar da, eskolaren errealitatea dela ulertuta. Aniztasun guztiak eskola inklusiboaren partaide izateko, ikastetxeko eta ikasgelako kultura eta antolaketa berregitea du helburu eskola inklusiboak: eskolak denon inplikazioa behar du (Hezitzaileak, irakasleak, ikasleak, eskolako beste profesionalak, aniztasunari erantzuteko eskolatik kanpo dauden baliabideak, familiak, komunitatea).

## ANIZTASUNA ABERASTASUN GISA

"No existe cosa más natural que la diversidad. La diferencia es lo normal."  
Miguel López Melero

- **Anitzak gara.** Aniztasun-mota ezberdinek bereizten gaituzte: fisikoa, funtzionala, kultura, arraza, sexua, psikologikoa, hizkuntza, gorpuzkerak... Eta ezberdintasuna da normaltasuna. Hala ere, normaltasunetik kanpo dauden ereduak baztertzera jotzen duen eredu inposatu da eta horrek sortu ditu estigmatizazioa, bazterketa eta bizikidetzako beste arazo batzuk, konfinamendutik bueltan bereziki zaindu behar ditugunak.

8

- **Eskolak kulturategotasuna bultzatu.** Migrazioaren hazkundearekin horren kontzientzia hartu dugun arren, aurretik existitzen zen. Integrazioaren ideia baztertu behar da, elkarren arteko ezagutza bultzatuz. Eskolara buelta, izan dadila kultura anitzen topaleku, gozaleku. Aberastu gaituzen elkarrekin.

- **Aniztasun funtzionalak kontuan hartu.** Curriculuma norberaren erritmo eta beharrei egokitzetik harago doa. Inklusioa ez da nahikoa, erritmo eta behar ezberdinetatik talde-koheretia bultzatzea izan behar da helburu nagusietakoa. Irailean eskolatik kanpo pasatako 6 hilabeteak korrika "berreskuratzea" errotik baztertu behar da.

- **Gorputz ez normatiboak kontuan hartu** ekitaldiak eta espazioak antolatzeko orduan. Era berean, kirolak edo gorputzaren heziketak curriculumaren parte garrantzitsu izan behar dute, baina ez lehia eta norgehiagoko jokuen balioetan oinarrituta, baizik eta gozamenerako eta norberaren ezagutzarako aukera moduan ulertuta.

- **Hizkuntzatik aldatu.** Batzuetan hizkuntzatik sortzen da estigmatizazioa ("gaixorik nago" edo "gripea dut" esaten badugu, zergatik erabiltzen dira "autista" edo "eskizofrenikoa da" bezalako azalpenak?) Era berean, hizkuntza eta iruditegitik hasita, aniztasuna erakutsi behar dugu. Ikusgai ez dagoena ez da existitzen.





## HIZKUNTZA ETA KULTURA

*“Egia da ezagutzaren unibertsalizaziora iristen ari den belaunaldiak erabileran ez baditu pauso sendoak ematen biziberritze prozesua airez huster a joan daitekeela”*

*“euskal kulturgintzak hitzun komunitatearen gasolina sinbolikoa ekoizten du hizkuntza-komunitatearen biziberritzean kulturgintzak funtzio kualitatiboa betetzen du.”*  
Jon Sarasua

- Hizkuntzari dagokionean Euskal Herriko ikasle gehienek, euskararen ezagutzan eta erabileran atzera pausua eman dute, etxe gehienetan ez delako euskaraz hitz egiten. Eskolara bueltatzean berriz ere euskararekin topo egingo dute, goxoa izan dadila euskararekin harremana: gozatzeko, sentimenduak adierazteko, jolasteko, lagunekin egoteko erabili dezatela... Eta noski, eskolak jarraitzeko ere bai.

- Euskara errefortzuak eta udarako aisialdia gakoak izango dira. Herri Hezitzaileen filosofiari jarraiki saiatu eskola ere udako aisialdian inplikatzeko, udalarekin eta herriko gainontzeko eragile zein ikastetxeekin. Aisialdi hezitzaileen gozatuz ikasi eta baloreetan heziko ditugu ikasleak. Beraz, udaran eskola barruan izatea pentsatu ere ez.

- Euskal Kultur transmisioan zegoen arrakala areagotu egin dela uste dugu. Eskolako Curriculumek dituzten gabezia guztiekin ere, euskal kulturaren transmisio minimo bat egiten da ( ikastetxe batzuetan gehiago) orain hori ere airean gelditu da, etxe batzuetan indartu egingo zen, gehienetan ahuldu. Eskolara bueltan euskara eta euskal kulturaren transmisioa indartu beharreko gaiak dira. Hezkuntza komunitateak hausnartu, tresna berriak eskaini, Euskal Curriculum eta herri curriculumak garatu behar ditugu. Administrazioei eskatzen diegu ez ditzatela Espainiar eta Frantziar Curriculum zentralista, kapitalista eta atzerakoiak inposatu.

9

## HEZKIDETZA

*“Mugitzen ez denak ez ditu kateak nabaritzen.”*  
Rosa Luxemburg

- **Betaurreko moreak jantzi.** Eskola berreraikitzen eta berrasmatzen ari garen honetan, betaurreko moreak jantzi eta ikuspegi feministatik goitik behera eraldatu behar dugu eskola. Hezkidetza ez da arlo bat, hezkuntza egiteko modu bat da, integrala.



- **Skolae.** Skolae bezalako programak tiraderatik ateratzea dagokie administrazioei eta hezkidetzak eskolara eraman, modu integralean, integratuan eta hezkuntza komunitatearekin elkarlanean.
- **Espazioen berrantolaketa.** Espazioaren berrantolaketaz asko hitz egingo dugu hurrengo egunetan, patriarkatuaren birusari aurre egin eta espazioak berrantolatzean emakumeen neurrirako gelak, komunak, patioak, espazioak eraiki.
- **Emakumeona da hitza.** COVID19an bizitzakoaz eta eskola berreraikitzeaz hitz egiten dugunean, eman hitza neskei, hartu hitza neska eta emakumeok, eskola berria feminismotik eraikiko dugulako.

## KALITATEZKO ZAINZA HAUR HEZKUNTZATIK HASITA

*“Gure ustez, hezkuntzaren kalitateaz ezin izanen dugu solastatu pertsonaren ongizatea, osasuna edota alderdi emozional eta afektiboaren garapen egokia izan gabe.”*  
*Joxe Mari Auzmendi*

10

- **Hezkuntzaren kalitaterako, pertsonaren ongizatea.** Osasuna eta bere alderdi emozional eta afektiboaren garapen egokia. Hortan oinarritzen da gure lana, gure zaintza, umeen ongizate hori bermatzen eta horretarako, noski, hezitzaileok ere ondo egon behar dugu. Segurtasuna izan behar du haurrak gurekin dagoen bitartean, segurtasun fisikoa eta segurtasun emozionala, bere gaitasunak modu egoki batean joan daitezzen garatzen. Eta gu, garapen horretan, gure ezagutzaren eta errespetuaren bidez, bidelagun izango gaitu.

- **Familiak, administrazioak eta arduradunak.** Batetik, familiekin hartu-emana landu, konfiantza izan elkarrekin, eta bestetik, haurreskolak partzuergoa, administrazioak edo dagokion sareko arduradunen sostengua, bai etengabeko formazioa eta bai material egokiaren eskuragarritasuna. Orain, Covid-19 dela eta, beharrezkoa dugu aditu jendearekin haurren, familien eta langileon segurtasuna bermatuko duen plangintza bat, eta nola ez, plangintza aurrera eraman ahal izateko beharrezko dugun materiala.



## JANTOKITIK JANGELARA

Krisia aldaketa garaia da, horregatik, eskolara bueltan jangela eredu berri baterantz urrats sendoak egin ditzagun.

- **Jangela asistentzialetik hezitzaileira.** Diotenez, jangelen helburua elikatzea da, baina honez gain, badira kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk: heziketa, aisialdia, lan baldintzak, bizikidetzak, kulturak, herrian enpleguari eustea edota hura sortzea, ingurumena, osasuna.

**Lan baldintza duinetarantz:** azpikontratekin amaitu; eredu berria publikoa eta komunitarioa izan behar da, eskola bat, sukalde bat; langileen lan baldintzak berrikusi eskoletako Jangela Batzordeetan parte hartuko dute jangeletako langileak.

- **Jantokiak gune hezitzaileak.** Esparru eta kultura ezberdinek parte-hartzeko gunea. Inguruarekin lotura izateko gunea. Jangelak, ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuaren parte izan behar dira, jaso ditzagun jangelako baloreak eta elikadurari dagozkionak eskola proiektuan.

- **Elikadura eta elikadura-burujabetza.** COVID-19aren testinguruan tokiko garapen sozioekonomikoa bultzatu behar da, baita eskoletatik ere. Jangelen eredu honek ekarpena egin behar dio gure portuen bizirauteari, arrantza eta nekazaritza sektoreari, lehen sektorean enplegua sortzeari, produkzio agroekologikoari, tokiko ekonomiari eta gure ingurumenaren zaintzari. Horretarako baserritar eta arrantzaleekin aliantzak sortu behar ditugu elkarlanean aritzeko elikadura burujabetzaren bidean.

- **Eta sasoiko elikagaiak gure ikastetxeetako sukaldeetara ekartzen baditugu?** Eta gainera ikasleei eta eskola komunitate osoari horrek gure kultura eta ekonomian zein osasunean dauzkan onurak azaltzen badiogu? Eskolara bueltan, ez gaitezen lau paretan artean izkutatu: baserri, merkatu eta portuetara irteerak egin; sasoiko jakiak zein diren ikasi-irakatsi; gure sukaldaritza gure kulturaren ondare bezala azaldu, jakintzaren transmisioa egin, etab. Jaso dezagun ikastetxeko hezkuntza proiektuan eta curriculum propioan.

11

## BERDEAN HEZI

*"Irakasgai guztien ardatza natura izan behar da"  
"Jendarte jatorragoa eraiki behar dugu,  
humanoagoa, polikiago doana...  
eta naturarekin lotura handiagoa duena."  
Heike Freire.*



- **Ingurunean hezi.** Naturatik urrundu eta are gehiago ingurunea txikitzearen ondorioz, gure bizitzak, bizitza bera arriskuan jarri dugu. COVID19ak erakutsi digu Eskolara buelta, naturara buelta izan behar dela. Hezkuntza, lau paretetatik harantzago eraman behar dugula, gure ormigoizko eraikinak eraldatu behar ditugula, ingurunearekin armonian hezi, hartu emanean bizi.
- **Pedagogia berdea egin.** Ingurunearekiko maitasunean hezi. Eskolan baratzak landatu; patio berdeak egin; hondakinen kudeaketa egokia egin gutxiago sortu, berrerabili eta birziklatu; gure geletatik irten eta patioak heziketarako erabili, patioak eraldatu;
- **Frenatu, heziketarekin gozatu.** Eskolako harrera egunak eta orduak eraldatu, naturalizatu, harremanetarako erabili. Are eta gehiago hilabete luzeetan eskolatik kanpo egon garenean, harrera eta egokitzeari atentzio berezia eskaini, haur hezkuntzatik unibertsitatera.

## HIGIENEA

*“Sozialki berdinak, gizatasunez desberdinak  
eta erabat askeak garen mundu batean”  
Rosa Luxemburg*

12

- **Garbitzaileak hezkuntzako langileak gara.** Gure ikastetxeetako higieñez arduratuko gara garbitzaileak. Ikastetxeetan eremu komunitarioak egoera txukunean mantentzeko ardurak izango dugu, desinfekzio lana eginez beti, eskola komunitateko gainontzeko kideen kolaborazioa beharko dugu.
- **Garbitzaileen lana errespetatu.** Elkarlanean arituko gara birziklapena egiteko orduan, desinfekzioa egingo diren tresnak eskura jarri behar zaizkie. Covid 19ren prebentzioan frogatu den bezala, higieñez-beharrak kolektibo horrek egiten duen lanera eraman du, maila handiagoan, erantzukizun handiagoarekin, profesionaltasunez eta teknika egokiekin egin behar da lan berezi hau. Lan-bolumena ( handituko denez, plantilla ere handitu behar da). Eskolara bueltan ekipamendua, prestakuntza espezifikoa eta gainerako hezkuntza-komunitatearekin koordinatutako lanaren antolaketa hobetu behar dira.
- Norberak **bere materiala (boligrafoak, saguak, ...) desinfektatuz, garbitzaileen lana erraztu.** Ikasleek eta hezkuntza komunitate guztiak, eskola, bertako materiala eta ingurunea balioan jarriz, zaindu egin behar dugu, are gehiago bizi dugun krisi garai honetan.

